

IGOERA UGARI HIMALAYAN Egun handia izan zuen atzo euskal mendizaletasunak: bost euskal mendizalek (Oiarzabal, Vallejo, Pasaban, Reketa eta Goñi) munduko tontorrik garaiena zapaldu zuten, Everest, eta Alberti Zerain Lhotseko tontorrera iritsi zen.

Egun handia Himalayan

Oiarzabal, Vallejo, Pasaban, Reketa eta Goñi Everesteko tontorrera igo ziren atzo, eta Alberto Zerain, Lhotsera

Ramon Olasagasti | **DONOSTIA**

Goizean goiz argitu zuen eguna: Euskal Herrian, 05:00ak zirenean (goizeko 09:00ak mendian, 11:00ak Pekingo orduan), Juan Vallejo gasteiztarra Everesteko tontorrera iritsi zen, ipar-ekialdeko ertzetik eta oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe. Ordu bate geroago Juanito Oiarzabal espediziokideak eta Mingma sherpak zapaldu zuten munduko tontor garaiena, Juanitok ere oxigenorik gabe. Bidean gurutzatu ziren bi mendizaleak, Vallejo behera eta Oiarzabal gora. Besarkada beroa, eta bakoi-tzak bere bideari eutsi zion. Vallejo igoera ez ezik jaitsiera ere sekulakoa egin zuen, eta kanpamentu nagusi aurreratura (6.400 m) jaitsi zen jarraian. 3.000 metro baino gehiagoko desnibela gainditu zuen egun berean. Itzela.

Oiarzabalek, gailurra Mikel semeari eta Sebastian Alvaro *Al filo*-ko zuzendariari eskaini eta gero, jaitsierari ekin zion, eta han hasi zen bere gurutzebidea: ikusmena galtzen hasi zen (elurretan itsumena deritzan gaitza), eta mantso-mantso, ezinean iritsi zen hirugarren kanpamentuko dendetara (8.300 m), Valentziako espediziokide batzuek (tartean, Endika Urtaran gasteiztarra) eta bi sherpak lagunduta. Valentziarrek beraiek beharrezko sendagaiak eman zizkioten Juanitori, Kiko Arregi sendagilearen aginduz, eta, itxuraz, zertxobait osatu zen gasteiztarra. Araceli emaztearekin hitz egin eta egoera ez zela hain larria adierazi zion.

Al filo-ko beste hirurek, Josu Bereziartua azpeitiarrak eta Ferran Latorre eta Juanjo Garra katalanek, 8.500 metro inguruan eman zuten buelta, Garra aurrena, Latorrek gero eta Bereziartuak ondoren, azpeitiarrak ere ikusmen arazoekin.

Nepaldik beste hiru euskal mendizale gailurrera


Everesteko gailurrera mendizale andana iritsi zen atzo, 40-50 inguru bai; etengabekoa zen atzo gailurreko albisteen jarioa. Oiarzabalek piztu zuen euskal mendizaleon jakin-mina, gailu-

Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal ipar-ekialdeko ertzetik

Juan Vallejo Euskal Herrian goizaldeko 5:00ak zirenean iritsi zen Everesteko tontorrera, goizeko 10:00etan han mendian, (Pekingo orduan 12:00ak), eta Juanito Oiarzabal ordubete geroago. Biek oxigeno bonbonarik gabe egin zuten igoera. Vallejo 6.400 metrora jaitsi zen. Oiarzabal hirugarren kanpamentuan geratu zen, ikusmenean arazoak zituela, Valentziako espedizio bateko kideekin eta bi sherparekin.

Edurne Pasaban, Patxi Goñi eta Julen Reketa Nepalgo ohiko bidetik

Hegoaldetik, Hego Lepoko ohiko bidetik, hiru euskal mendizalek lortu zuten atzo Everest gainera iristea. Edurne Pasaban tolosarra izan zen lehena, eta ondoren Julen Reketa eta Patxi Goñi igo ziren. Gaztela-Leongo espedizio bateko kideek baieztatu zuten haien igoera. Hirurak Hego Lepora jaitsi eta laugarren kanpamentuko dendetan geratu ziren atzo, atsedean hartzen. Gaur jaitsiko bide dira behera.



Bigarren eskaloia edo irtenunea

Hau da ipar-ekialdeko ertzetik (Oiarzabal eta Vallejo jarraitu bidetik), zailtasunik nagusiena. 8.600-8.700 metro artean dago. Juanitok egonaldia egin zuen han, beherakoan, bista galduta.



Juan Vallejo

Gasteiz
31 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Lau zortzimilako igo ditu: Makalu (95), Lhotse (95), Annapurna (1999) eta Everest (2001). Everesten bi aldiz egona zen aurrez (1993 eta 1997) eta horrez gain, Himalayako beste espedizio askotan hartu izan du parte: Shisha Pangma (96), K-2 eta Broad (97), Dhaulagiri (98). Aconcaguako hego aurpegia ere igoa du.



Juanito Oiarzabal

Gasteiz
45 urte
MENDIKO IBILBIDEA: 14 zortzimilakoak igo ditu, guztiak oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe. Bosgarren mendizalea izan zen hamalau mendirik garaienak igozten. Everest birritan, atzokoarekin. 1993ko urrian igo zen lehen aldiz Everestera, orduko hartan oxigeno artifizialaren laguntzarekin.



Edurne Pasaban

Tolosa
27 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Andeetan igoera batzuk egin ondoren, 1998an Dhaulagiri izan zen Tolosako espedizio batekin, eta 8.000 metrotik gertu ibili zen. 1999 eta 2000. urteetan Everesteko ipar-ekialdeko ertzetik saiatu zen, eta bietan altuera paretura iritsi zen: 8.300 metro pasatxo. Atzo, mendiaren beste aldetik, gailurrera.



Patxi Goñi

Irunberri
36 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Pamir mendikatean Voroviev, Chetyrekh eta Korgenevskia (7.105 m) tontorrek igo zituen 1996an. Hurrengo urtean, Perun, Urus, Ishinca, Huascarán (6.768 m) eta Artesonraju. 1998an Tien Shan mendikatean Pobeda tontorrera igo zen, eta 1999an lehen zortzimilakoa zapaldu zuen: Gasherbrum II.



Julen Reketa

Laudio
34 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Reketa eta Patxi Goñi elkarrekin ibili izan dira beti goimendian. Beraz, ibilbide bera dute. Voroviev, Chetyrekh eta Korgenevskia (7.105 m) 1996an. Hurrengo urtean, Urus, Ishinca, Huascarán (6.768 m) eta Artesonraju. 1998an Tien Shan-en Pobeda igo zuen, eta 1999an aurreko zortzimilakoa: Gasherbrum II.